10. Coordinar la creación de una aplicación que recoja los datos de las personas exentas de acreditación del certificado de euskera por haber realizado sus estudios en esta lengua (Decreto 47/2012).



- |  |  |
|--|--|
| <p>11. Herri administrazioen arteko koordinazioa bultzatzea HAKOBA eta Mahai sektorialeko batzordearen bidez.</p> <p>12. Euskararen bilakabidearen gaineko azterketak egitea.</p> <p>13. Bikain bultzatu, zabaldu eta kudeaketan laguntzea.</p> <p>14. Hizkuntza normalizazio teknikarien formazioa hobetzeko ahalegina egitea.</p> <p>15. Toki-erakundeentzako aholkularitza eta koordinazioa sakontzea, ESEP plan estrategikoak diseinatu eta inplementatzeko.</p> <p>16. ESEPeke plan estrategikoak diseinatzeko eta garatzeko, toki-erakundeentzako diru-laguntza deialdiaren gaineko hausnarketa faseari ekitea.</p> <p>17. Herritarren hizkuntza eskubideak babesteko zerbitzu publikoa (ELEBIDE) sendotzea.</p> <p>18. Zerbitzu publikoetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean, era progresibo eta gradualean aurrera egitea, arreta berezia ipiniz osasun-, polizia- eta justizia-zerbitzuetan.</p> <p>19. Euskararen erabilera esparru ez-formaletan indartzea.</p> <p>20. Haur eta gazteei begirako aisialdirako proiektuak sustatzea euskararen erabilera areagotzeko.</p> <p>21. Euskaldun pasibo helduen multzoak euskararen erabilera bultzatzerakoan duen garrantzia aztertzea.</p> <p>22. Euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak 2017-2018 ikasturtean zehar bere curriculum-proiektua lantzea, HEOCaren (Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum) ezarpenerako.</p> <p>23. Helduen euskararen ikas-irakaskuntzarako erreferentziako curriculum baten osaketa lantzea.</p> <p>24. Helduen euskalduntzearen alorreko eragileen gaitasuna areagotzea.</p> <p>25. HEOCaren B1 mailarako eskuliburu didaktikoa merkaturatzea.</p> <p>26. Udal Euskaltegien, Euskaltegi Pribatu Homologatuen eta Euskal Etxeen jarduerarako laguntza deialdiak eta euskaltegi-tako ikasleentzako diru-laguntza indibidualen deialdia gauzatzea.</p> <p>27. B2 mailaraino doakotasuna lortzeko prozesua lantzea HAKOBaren bidez.</p> | <p>11. Promover la coordinación entre las administraciones públicas por medio de HAKOBA y de las reuniones de la Comisión de la Mesa Sectorial.</p> <p>12. Realizar estudios relativos a la evolución del euskera.</p> <p>13. Impulsar, difundir y colaborar en la gestión de Bikain.</p> <p>14. Promover la mejora de la formación del personal técnico de normalización.</p> <p>15. Profundizar en el asesoramiento y coordinación de las entidades locales para el diseño e implementación de los planes estratégicos en el marco de ESEP.</p> <p>16. Iniciar una fase de reflexión sobre la convocatoria de ayudas a las entidades locales para el diseño y el desarrollo de los planes estratégicos de ESEP.</p> <p>17. Consolidar ELEBIDE (servicio público para la protección de los derechos lingüísticos).</p> <p>18. Avanzar de manera progresiva y gradual en lo referente a la protección de los derechos lingüísticos de la ciudadanía en los servicios públicos, prestando especial atención a los servicios sanitarios, policiales y de justicia.</p> <p>19. Afianzar el uso del euskera en los ámbitos no formales.</p> <p>20. Desarrollar proyectos para el fomento del uso del euskera en el ocio dirigidos a la infancia y la juventud.</p> <p>21. Analizar la importancia de la población vasca pasiva adulta a la hora de impulsar el uso del euskera.</p> <p>22. Elaborar cada euskaltegi o centro de autoaprendizaje de euskera a lo largo del curso 2017-2018 su propio proyecto curricular para el establecimiento del HEOC (Currículum Básico para la Euskaldunización de Adultos).</p> <p>23. Diseñar la elaboración de un currículo de referencia para la enseñanza y aprendizaje del euskara por personas adultas.</p> <p>24. Fomentar la capacidad de trabajo de los agentes implicados en la euskaldunización de personas adultas.</p> <p>25. Comercializar el manual didáctico para el nivel B1 del HEOC.</p> <p>26. Ejecutar las convocatorias de ayudas para la actividad de los Euskaltegis Municipales, Euskaltegis Privados Homologados y Centros Vascos y la convocatoria de ayudas individuales a los alumnos y las alumnas de los euskaltegis.</p> <p>27. Trabajar junto con HAKOBA la gratuidad del proceso de aprendizaje de las Personas Adultas hasta el nivel B2.</p> |
|--|--|

28. Euskararen bizipena hitzun berriengana hurbiltzeko estrategia egokituak bideratzea.

29. Alor sozioekonomikoan euskararen erabilera bultzatzea eta kontsumintzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak aintzat hartuak izateko bidea egiten jarraitzea.

30. Hedabideetan euskararen presentzia areagotzea.

31. Ingurune digitalean euskararen erabilera sustatzea.

32. Hiztegi gintza, toponimia eta terminologiaren lanketan ari diren erakundeekin lankidetzan jardutea.

33. EAEz besteko euskararen lurraldeetako eragile publiko zein pribatuekin hitzartutako lankidetzan sakontzea.

34. Euskararen garapen sozialean diharduten eragileen lana eta lankidetzan bultzatzea.

35. Euskararen unibertsoa eta bizipena gizarte osoaren aurrean duindu eta prestigioa ematea.

36. Hizkuntzak biziberritzeko lankidetzan sustatzea, bai Espainiako Estatuan bai Europan eta mundu zabalean.

37. Euskararen erabileraren aldeko sentiberatasuna sustatzeko ekimenak bideratzea.

28. Aplicar estrategias dirigidas a conseguir el acercamiento de la vivencia del euskera a las personas nuevas hablantes.

29. Impulsar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico y dar continuidad al trabajo orientado a la consecución del respeto de los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias.

30. Impulsar la presencia del euskera en los medios de comunicación.

31. Afianzar y ampliar el uso del euskera en el Entorno Digital.

32. Colaborar con las asociaciones correspondientes en la elaboración de lexicografía, toponimia y terminología.

33. Profundizar en la colaboración con agentes públicos y privados de los territorios vascos ajenos a la CAE.

34. Impulsar el trabajo y la colaboración con los agentes que trabajan en el desarrollo social del euskera.

35. Dignificar y prestigiar el universo y la vivencia del euskera ante toda la sociedad.

36. Promover la colaboración de revitalización lingüística, tanto en el marco del Estado Español como en el de Europa y del mundo.

37. Seguir fomentando iniciativas de sensibilización a favor del uso del euskera.

## JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Zuzendaritzak kalitateko erreferentziako euskal kirol eredia bultzatzen jarraituko du, beti ere Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak dioenari jarraiki. Lege horren arabera, herri agintariak, beren eskumenen barruan, kirola askatasunez eta norbere borondatez egiteko eskubidea –pertsona guztiek dutena– bermatu behar dute, izan ere, kirola interes publikoko gizarte-jardura da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizarte ondo izateko lagungarria.

Legegintzaldi honi begira 11 konpromiso hartu dira oinarri, eta 2018an honela gauzatuko dira:

1. Ekitaldian zehar etorkizunerako nahi dugun jardura fisiko eta kirol ereduari buruzko hausnarketarekin jarraituko dugu, gaur egun indarrean dagoen Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea aldatzeko lege-proiektua, egungo errealitate eragokitukoak, idatzi ahal izateko.

2. Jardura Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren erronka nagusietako bat Euskadi gizarte aktiboagoa lortzea da. Gizarte aldaketek aktibitate eza eta sedentarismoa ekarri dituzte, eta horiei aurre egin beharrean gaude. Horretarako, ezinbestekoa da Euskadi gizarte aktiboagoa eta ahalik eta osasuntsuena izateko politikak martxan jartzea.

## ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE

Teniendo en cuenta que, de acuerdo con la Ley 14/1998 del Deporte del País Vasco, los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, deberán garantizar el derecho fundamental de todas las personas a la práctica del deporte de forma libre y voluntaria en cuanto que constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social, desde esta Dirección se continuará ofreciendo un modelo vasco referente y de calidad.

De cara a la presente legislatura, la dirección ha adquirido 11 compromisos que durante el ejercicio 2018 se materializarán de la siguiente manera:

1. Durante este ejercicio queremos continuar con la reflexión sobre el modelo de actividad física y deporte que queremos a futuro a fin de posibilitar la redacción de un proyecto de ley de modificación de la Ley 14/1998 del Deporte del País Vasco adaptado a la realidad actual.

2. Uno de los principales retos de la Dirección de Actividad Física y Deporte es la consecución de una sociedad más activa. Los cambios en nuestra sociedad nos conducen a la falta de actividad y al sedentarismo, algo que necesitamos evitar. Por ello, resulta imprescindible poner en marcha políticas dirigidas a que Euskadi sea una sociedad más activa y lo más saludable posible.

Beraz, Gobernuaren programa estrategikoarekin jarraituko dugu, Euskadi bertako herritarrek egiten duten jarduera fisikoaren erreferente izan dadin.

3. Gaur egun ditugun kirol elkarte eta federazioen egituren inguruko hausnarketa egin behar dugu. Gure federazio sistema XXI. mendera egokitu behar dugu, eta sistema horrek gizarteak dituen erronkei erantzun behar die. Sistema eraginkorra behar dugu, baliabideak kirol maila hobetzera bideratuko dituena. Txapelketen egituren inguruan ere badugu zer egin, gure egoera sozioekonomikoa aintzat hartuta gizartearentzat erakargarriak eta jasangarriak izango diren euskal lehiaketa esparruak garatzeko, kirol ezberdinetan.

4. Goi mailako euskal kirola indartzea da beste helburu nagusietako bat, hau da, Basque Team Fundazioa indartzea, Euskadiko goi mailako kirolarien erreferente modura. Horretarako, ezinbestekoa da eragile ezberdinen arteko koordinazioa. Kirolariei eta entrenatzaileei ematen zaizkien bekak eta zerbitzuak hobetu eta zabaldu behar ditugu. Horrekin batera, hiru foru aldundien lankidetzarekin, goi mailarako bidean lagundu behar diegu kirolariei.

Fadurako Basque Team Zentroaren funtzioa egitekoa sustatzen jarraitu nahi dugu.

BAT (Basque Team) marka indartuko dugu, datozen olinpiar jokoetan parte-hartzaile gehiago edukitzeko eta domina zein diploma gehiago eskuratzeko.

5. Dopinaren inguruko gure tolerantzia zero izatea dugu helburu. Horretarako, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren (DAEA-AVA) lana indartuko dugu, animaliei kontrol gehiago eginez, lagin-kopurua mantenduz eta lehiaketatik kanpo egiten diren kontrolak indartuz. Horrekin guztiarekin, Euskadiko dopinaren aurkako agentzia Munduko Agentziako kide izatea lortzea izango litzateke Euskadi dopinaren kontrako erreferente bihurtzeko azken urratsa, eta horretarako ari gara lanean buru-belarri.

6. Jarduera fisiko eta kirol arloko pertsonen kualifikazioa garatzea eta, oro har, kirol esparruaren profesionalizazioa indartzea da garatu beharreko beste ardatzetako bat. Kualifikazioaren arloan, Kiroleko Lanbideen Legea onartuko da, sektoreak hainbatetan eskatu baitu horren onarpena.

Kirolaren Euskal Eskolaren bitartez, kirol eragileak prestatzeko plana ezartzen jarraituko dugu.

7. Benetako berdintasuna lortzea da jarduera fisiko eta kirol esparruan dugun beste erronka bat.

Emakumezko kirolariak nekez agertzen dira hedabideetan, kudeaketa esparruetan edo federazioetan.

A tal fin, continuaremos con el proyecto estratégico de Gobierno para que Euskadi sea referente en la actividad física que realicen sus ciudadanos y ciudadanas.

3. Debemos realizar una reflexión en torno a las actuales estructuras de nuestras entidades y federaciones deportivas. Necesitamos adaptar nuestro sistema federativo al siglo XXI, y dicho sistema debe responder a los retos que exige la sociedad. Necesitamos un sistema más eficiente, que destine los recursos a la mejora del nivel deportivo. También tenemos tarea por hacer en torno a las estructuras de las competiciones existentes, con el fin de desarrollar en los diversos deportes ámbitos vascos de competición que resulten atractivos para la sociedad y sostenibles, teniendo en cuenta nuestra situación socioeconómica.

4. Otro de los objetivos es reforzar el deporte vasco de alto nivel, es decir, reforzar la Fundación Basque Team Fundazioa, como referente de los deportistas de alto nivel de Euskadi. Para ello resulta imprescindible la coordinación entre los diversos agentes. Debemos mejorar y ampliar las becas y servicios que se ofrecen a deportistas y entrenadores. Asimismo, en colaboración con las diputaciones forales, apoyando a deportistas en el camino hacia la élite.

Queremos continuar impulsando el papel de Basque Team Zentroa de Fadura.

Potenciaremos la marca BAT (Basque Team) con el objeto de incrementar el número de participantes y la obtención de medallas y diplomas en los próximos Juegos Olímpicos..

5. Nuestra meta será la tolerancia cero contra el dopaje. Para ello reforzaremos el trabajo de la Agencia Vasca Antidopaje (DAEA-AVA), ampliando la realización de controles a animales y manteniendo el número de muestras y reforzando los controles que se realizan fuera de competición. El último paso para convertir a Euskadi en un referente contra el dopaje sería lograr que la agencia antidopaje de Euskadi fuese miembro de la Agencia Mundial para lo cual trabajaremos activamente.

6. Otro de los ejes a desarrollar es la cualificación de las personas pertenecientes al sector de la actividad física y el deporte y, en general, el reforzamiento de la profesionalización del ámbito deportivo. En el área de la cualificación, se aprobará la Ley de las Profesiones del Deporte, aprobación que ha sido reiteradamente solicitada por el sector.

A través de la Escuela Vasca del Deporte continuaremos con la implementación del plan de formación de agentes deportivos.

7. Otro reto que afrontamos desde el área de la actividad física y el deporte es la consecución de una auténtica igualdad.

La presencia de mujeres deportistas en los medios de comunicación, en ámbitos de gestión o en las federaciones deportivas es todavía exigua.

Benetako berdintasuna, efektiboa, sustatuko dugu jarduera fisikoan eta kirolean. "Kirolean gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko programa" berrian jasota dauden ekintzak ezarriko ditugu, emakumeek euskal kirolaren hainbat esparrutan dituzten oztopoak eta diskriminazioak ezabatzeke, bai praktikan, bai kudeaketan, bai eta antolakuntzan eta zuzendaritzan ere. Era berean, gai horren inguruko araudia eta erakunde arteko koordinazioa garatuko dira.

8. Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan dugun beste erronka bat kirol egokituari loturik dago.

9. Gure kirolak babestea izango litzateke beste ardatzetako bat, gure kulturaren parte baitira. Beraz, gureak (autoktonoak) diren kirolei (herri kirolak, pilota eta arrauna) dagokienez, plan estrategikoak laguntzen jarraituko dugu, beste erakundeen lankidetzarekin, etorkizuna bermatuko duten politikak garatuko ditugu, eta beharreko laguntza bideratuko dugu.

10. Jarduera fisikoa eta kirola gazteen heziketarako bidea ere badira, eta, zehazki, gure hizkuntzan hezteko bidea, hau da, gure gazteen artean euskara bultzatzeko eta indartzeko tresna aproposa. Beraz, ezinbestekoa dugu kirolaren eta euskararen arteko uztarketa hori, hizkuntza ikasi eta lantzeko, eta erabateko normaltasunez erabiltzeko. Jarduera hau Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren arteko lan taldearen bitartez garatuko da, kirol arloan euskara sustatzeko eta gazteen artean erabiltzen laguntzeko.

11. Azkenik, nazio bat garen heinean, ekitaldi honetan ere euskal selekzioen aldeko politikak garatuko ditugu.

## EITB

EITBri dagokienez, aipatu behar da euskal gizartearen zerbitzuan dagoen enpresa publikoa dela, helburu hauek dituena: euskal gizarte informatzea, herritarrek politikan parte har dezaten bultzatzea, eta euskara eta euskal kultura sustatzea. Era berean, EITBren beste helburuetako bat da, herritarrei eskaintzea irrati eta telebista programazio erakargarria eta kalitatezkoa.

Eusko Jaurlaritzak eta EITBk kontratu programa hitzarmena sinatu zuten 2016-2019 epealdirako. Hitzarmen horretan jasotzen dira EITBk eskaini behar duen zerbitzu publikoaren oinarriak, filosofia eta edukiak. Irrati eta telebista publikoak bere gain hartzen dituen betebeharrak ere ezartzen dira, zerbitzu publiko hori betetzeko. Azkenik, urte anitzeko finantzaketa zehazten da, eta egonkortasuna eskaintzen zaio erakundeari finantza-segurtasuna eta egonkortasuna eskaintzen diona 2016-2019 epealdirako. Aurrekontuen ikuspuntutik EITB Sailaren menpe egonik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak definitzen dituen aurrekontuen bitartez zehazten da erakunde publikoaren finantzaketa hori.

Fomentaremos la igualdad real y efectiva en la actividad física y el deporte. Se implementarán las acciones que se recogen en el nuevo "Programa de promoción de la Igualdad entre mujeres y hombres en el sector deportivo" a fin de eliminar las barreras y las discriminaciones que encuentran las mujeres en los diferentes ámbitos del deporte vasco, tanto a nivel de práctica como de gestión, organización y dirección. Asimismo se desarrollará la normativa y coordinación interinstitucional en la materia.

8. Existe también, dentro de la actividad física y deportiva, un reto asociado al deporte adaptado.

9. Otro eje sería apoyar nuestros deportes autóctonos, en la medida en que forman parte de nuestra cultura. Por consiguiente, en cuanto a nuestros deportes autóctonos (Herri kirolak, pelota y remo), continuaremos impulsando la implementación de planes estratégicos en colaboración con otras instituciones, desarrollando políticas que garanticen su futuro y canalizando la ayuda necesaria.

10. La actividad física y el deporte, constituyen también una vía de formación para la juventud y, concretamente, una vía de formación en nuestro idioma, es decir, un instrumento adecuado para promover y reforzar el euskera entre nuestra juventud. Por tanto, nos resulta imprescindible esta conjunción de deporte y euskera para el aprendizaje y cultivo del idioma y para que sea utilizado con total normalidad. Dicha actividad se canalizará a través del equipo de trabajo constituido entre la Viceconsejería de Política Lingüística y la Dirección de Actividad Física y Deporte para el fomento del euskera en el ámbito deportivo, de manera que sea una ayuda para su utilización por los jóvenes.

11. Por último, en la medida en que somos una nación, durante el ejercicio continuaremos desarrollando políticas en favor de las selecciones vascas.

## EITB

En lo que a EITB se refiere, cabe mencionar que se trata de una empresa pública al servicio de la sociedad vasca cuyos objetivos fundamentales son: informar a la sociedad vasca, promover la participación política de la ciudadanía y fomentar la lengua y la cultura vascas. Asimismo, otro de los objetivos de EITB es ofrecer a la ciudadanía una programación de radio y televisión atractiva y de calidad.

De cara al periodo 2016-2019, el Gobierno Vasco y EITB firmaron el contrato-programa. Este documento define la filosofía, los principios y los contenidos del servicio público que EITB debe prestar. Se establecen también las obligaciones que la radio y televisión pública asumen para el cumplimiento de ese servicio público. Por último, se define un horizonte de financiación plurianual que otorga seguridad y estabilidad financiera al ente para el periodo 2016-2019. En la medida en que depende económicamente de este Departamento, a través de los presupuestos de Cultura y Política Lingüística se concreta esa financiación del ente.

**PROGRAMA**

4511 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA.  
EGITURA ETA LAGUNTZA

**ARDURADUNA**

10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA  
ZERBITZU ZUZENDARITZA

**PROGRAMA**

4511 ESTRUCTURA Y APOYO DE CULTURA Y  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**RESPONSABLE**

10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
DIRECCIÓN DE SERVICIOS

**MEMORIA**

Programa honetako gastuak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailako ohiko funtzionamendua finantzatzeko dira.

Los gastos de este programa se destinan a financiar el funcionamiento ordinario del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Beraz, Sailaren Zerbitzu Orokorren eta lurralde eremuen funtzionamendu-gastuak sartzen dira.

Incluyen, por lo tanto, los correspondientes al funcionamiento de los Servicios Centrales y periféricos del Departamento.

Egitura eta Laguntza programaren helburuak Kultura eta Hizkuntza Politika arloak planifikatzea, zuzentzea eta kudeatzea dira.

Los objetivos del programa de Estructura y Apoyo están orientados a la planificación, dirección y gestión de las áreas de Cultura y Política Lingüística.

<b>HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO ACCION INDICADOR</b>
<p><b>1. SAILAREN EKINTZEN PLANIFIKAZIOA, ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA</b></p> <p>1. Sailaren goi-zuzendaritza betetzea.</p> <p><b>2. KUDEAKETA EKONOMIKOA</b></p> <p>1. Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egitea, Sailaren aurrekontua, aurrekontu-betearazpena eta gastuaren kontrola.</p> <p><b>3. LANGILEEN KUDEAKETA</b></p> <p>1. Sailari atxikitako langileak kudeatzea, funtzio publikoko araudiaren arabera, eta ezartzen diren akordio, hitzarmen edo aplikagarriak diren bestelako arauen arabera. Era berean, giza baliabideen arloko jarduerak koordinatzea.</p>		<p><b>1. PLANIFICACIÓN, DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN DE LAS ACTIVIDADES DEL DEPARTAMENTO</b></p> <p>1. Ejercer la alta dirección del Departamento.</p> <p><b>2. GESTIÓN ECONÓMICA</b></p> <p>1. Realizar la gestión económico-financiera mediante la elaboración de los Presupuestos del Departamento, la ejecución presupuestaria y el control del gasto.</p> <p><b>3. GESTIÓN DEL PERSONAL</b></p> <p>1. Gestionar el personal adscrito al Departamento, de conformidad con la normativa de función pública, acuerdos, convenios u otro tipo de normas aplicables al respecto. Igualmente, coordinar las actuaciones en el ámbito de recursos humanos.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Sailari atxikitako langileak (goi-karguak, funtzionarioak, lan-legepekoak, behin-behinekoak) (lanpostu-kopurua).	186	1. Personal adscrito al Departamento (altos cargos, funcionarios, laborales, eventuales) (número de puestos).
<b>4. KUDEAKETA INFORMATIKOA</b>		<b>4. GESTIÓN INFORMÁTICA</b>
1. Informazio-sistemen arloan proiektuak kudeatzea.		1. Gestionar proyectos en el ámbito de los Sistemas de Información.
1. Aplikazioak diseinatu eta abiaraztea.	16	1. Diseñar e implantar aplicaciones.
2. Ekipamenduen inbentarioa, beharrak, proiektuak, aplikazioak, segurtasuna eta kalitate-sistemak kudeatzea.	145	2. Gestionar el inventario de equipos, las necesidades, los proyectos, las aplicaciones, la seguridad y los sistemas de calidad.
3. Informazio-sistemekin lotutako kontsultei erantzuna ematea.	120	3. Atender consultas de Sistemas de Información.
<b>5. KUDEAKETA JURIDIKOA</b>		<b>5. GESTIÓN JURÍDICA</b>
1. Sailari aholkularitza ematea, legeak, dekretuak, erregelamenduak, hitzarmenak, diru-laguntza deialdiak eta bestelako lege-xedapenak lantzeko. Era berean, arloan-arloan planteatzen diren gaiei dagokien indarreko araudiaren egokitasunaz txostenak ematea. Halaber, errekurso eta erreklamazio administratiboan ebazpen-proposamenak egitea.		1. Asistir al Departamento en la elaboración de leyes, decretos, reglamentos, convenios, convocatorias de ayudas y otros desarrollos normativos. Igualmente, emitir informes sobre la adecuación a la normativa vigente de todas aquéllas materias que se plantean desde las diferentes áreas, así como elaborar las propuestas de resolución de recursos y reclamaciones administrativas.
<b>6. ORGANO ESTADISTIKOAREN KUDEAKETA</b>		<b>6. GESTIÓN DEL ÓRGANO ESTADÍSTICO</b>
1. Txosten teknikoak.	10	1. Informes técnicos.
2. Estatistika lanak (Estatistika Programan jasotakoak).	6	2. Operaciones estadísticas (incluidas en el Programa Estadístico).
3. Informazio-eskaerak estatistika Institutuei.	6	3. Peticiones de información a Institutos de estadística.
<b>7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKEN KUDEAKETA</b>		<b>7. GESTIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES</b>
1. Legegintzaldiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana diseinatzea, garatzea eta koordinatzea, baita urteko Plana ere. Era berean planifikazio horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.	1	1. Diseñar, impulsar y coordinar el Plan de igualdad de mujeres y hombres de la Legislatura en el Departamento, así como el Plan anual. Igualmente, realizar el seguimiento y la evaluación de dicha planificación.
<b>8. HIZKUNTZA KUDEAKETA</b>		<b>8. GESTIÓN LINGÜÍSTICA</b>
1. Saileko euskara-plana egitea eta ebaluatzea, horiek garatzeko jarduerak sustatzea eta hizkuntzaren erabileraren jarraipena egitea. Horretarako, mota guztietako aholkularitza eta laguntza eskaintzea lankideei beren euskalduntze-prozesuan zehar.		1. Elaborar y evaluar el plan de euskera de Departamento, promocionando actividades para su desarrollo y realizando el seguimiento del uso de la lengua. Prestar todo tipo de asesoramiento y ayuda a las personas durante su proceso de euskaldunización

**PROGRAMA**  
4512 KIROLAK  
**ARDURADUNA**  
10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA  
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN  
ZUZENDARITZA

**PROGRAMA**  
4512 DEPORTES  
**RESPONSABLE**  
10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE

### MEMORIA

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, herri agintariek, beren eskumenen barruan, kirola askatasunez eta norbere borondatez egiteko eskubidea –pertsonek dutena– bermatu behar dute, izan ere, kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizarteak ondo izateko lagungarria.

Jarduera fisikoa eta kirola ezinbestekoak dira gazteen heziketarako. Jarduera fisikoa eta kirola egiten duen orok badaki diziplina eta eguneroko lana zer diren, baita taldean jokatzeko ardura lantzea ere. Gainera, nork bere burua zaintzeko ohiturak ikasten dira, kirolaren bitartez.

Jarduera fisikoa eta kirola oso tresna egokiak dira gizartearen integrazteko. Jarduera fisikoaren eta kirolaren bitartez, talde edota herri baten parte izateko aukera errazten zaie bertakoak ez diren pertsonari, eta integrazio sarrera bikaina izan daiteke atzeritik gure herrira etorritako hainbat pertsonarentzat.

Jarduera fisikoa eta kirola gure bizi-kalitatearen eta osasunaren oinarria dira, ezinbestekoak gure bizi-kalitatean onurak lortzeko. Gaurko gizarteak eta batez ere ditugun abantaila teknologikoei badute alde kaltegarri bat, jarduera fisiko eza eta sedentarismoa, alegia.

Momentu honetan, heriotza-faktoreetan laugarrena dira munduan, eta, beraz, oso kontuan hartu beharrekoak. Gizarte aktiboa, hau da, jarduera fisikoa egiten duen gizarteak, sedentarioa ez dena, ezinbestekoa da gure ongizate mailari eusteko. Gizarte alaiago, produktiboago eta osasuntsuagoa ekarriko du, eta, nola ez, jasangarriago egingo ditu gure ongizate mailak osasun arloan dituen kostuak.

De acuerdo con la Ley 14/1998 del Deporte del País Vasco, los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, garantizarán el derecho fundamental de todas las personas a la práctica del deporte de forma libre y voluntaria en cuanto que constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social.

La actividad física y el deporte resultan imprescindibles para la educación de las y los jóvenes. Toda persona que haga actividad física y deporte sabe lo que representan la disciplina y el trabajo diario, así como el cultivo de la responsabilidad de actuar en grupo. Además, por medio del deporte se adquieren hábitos de autocuidado.

La actividad física y el deporte son instrumentos muy adecuados para la integración social. Por medio de ellos se facilita la oportunidad de pertenecer a un grupo o pueblo a las personas foráneas, y pueden proporcionar un excelente acceso a la integración a muchas personas llegadas a nuestro pueblo.

La actividad física y el deporte son la base de nuestra calidad de vida y de nuestra salud, imprescindibles para conseguir beneficios en nuestra calidad de vida. La sociedad actual y especialmente los avances tecnológicos con que cuenta tienen su vertiente perjudicial en la falta de actividad física y el sedentarismo.

En estos momentos constituyen el cuarto factor de mortalidad a nivel mundial, por lo cual deben ser tomados en cuenta. Una sociedad activa, es decir, una sociedad que realiza actividad física, alejada del sedentarismo, resulta imprescindible para mantener nuestro nivel de bienestar. Ello redundará en una sociedad más feliz, productiva y saludable y, por supuesto, hará más sostenibles los costes que conlleva nuestro nivel de bienestar en el área sanitaria.

Helburua izango da gure gizartearen nahiei egokitutako jarduera fisiko eta kirol eredu bat finkatzea, kalitatearen erreferente izango den eredu aitzindari bat.

Zuzendaritzak XXI. menderako kalitateko erreferentziako euskal kirol eredu bultzatzen jarraituko du.

Gure ardatza estrategikoen artean ondorengo hauek daude:

1. Etorkizunerako nahi dugun jarduera fisiko eta kirol ereduari buruzko hausnarketarekin jarraitu, gaur egun indarrean dagoen Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea aldatzeko lege-proiektua, egungo errealitatera egokitutakoa, idatzi ahal izateko.

2. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren erroka nagusietako bat Euskadi gizarte aktiboagoa lortzea da. Gizarte aldaketek aktibitate eza eta sedentarisinoa ekarri dituzte, eta horiei aurre egin beharrean gaude. Horretarako, ezinbestekoa da Euskadi gizarte aktiboagoa eta ahalik eta osasuntsuena izateko politikak martxan jartzea.

Beraz, Gobernuaren programa estrategikoarekin jarraituko dugu, Euskadi bertako herritarrek egiten duten jarduera fisikoaren erreferente izan dadin.

3. Gaur egun ditugun kirol elkarte eta federazioen egituren inguruko hausnarketa egin behar dugu. Gure federazio sistema XXI. mendera egokitu behar dugu, eta sistema horrek gizarteak dituen errokei erantzun behar die. Sistema efizienteagoa behar dugu, baliabideak kirol maila hobetzerantz bideratuko dituen. Txapelketen egituren inguruan ere badugu zer egin, gure egoera sozioekonomikoa aintzat hartuta gizartearentzat erakargarriak eta jasagarriak izango diren euskal lehiaketa esparruak garatzeko, kirolean.

4. Goi mailako euskal kirola indartzea da beste helburu nagusietako bat, hau da, Basque Team Fundazioa indartzea, Euskadiko goi mailako kirolarien erreferente modura. Horretarako, ezinbestekoa da eragileen arteko koordinazioa. Kirolari eta entrenatzaileei ematen zaizkien bekak eta zerbitzuak hobetu eta zabaldu behar ditugu. Horrekin batera, hiru foru aldundien lankidetzarekin, goi mailarako bidean lagundu behar diegu kirolariei.

Fadurako Basque Team Zentroaren funtzioa sustatzen jarraitu nahi dugu.

BAT (Basque Team) marka indartuko dugu, datozen olinpiar jokoetan parte-hartzaile gehiago edukitzeko eta domina zein diploma gehiago eskuratzeko.

El objetivo será fijar un modelo de actividad física y deporte adaptado a los deseos de nuestra sociedad, pionero y referente de calidad en nuestra sociedad.

Desde la Dirección continuaremos impulsando un modelo deportivo vasco referente y de calidad para el siglo XXI.

Entre nuestros ejes estratégicos se hallan los siguientes:

1. Continuar con la reflexión sobre el modelo de actividad física y deporte que queremos a futuro a fin de posibilitar la redacción de un proyecto de ley de modificación de la Ley 14/1998 del Deporte del País Vasco adaptado a la realidad actual.

2 Uno de los principales retos de la Dirección de Actividad Física y Deporte es la consecución de una sociedad más activa. Los cambios en nuestra sociedad nos conducen a la falta de actividad y al sedentarismo, algo que necesitamos evitar. Por ello, resulta imprescindible poner en marcha políticas dirigidas a que Euskadi sea una sociedad más activa y lo más saludable posible.

A tal fin, continuaremos con el proyecto estratégico de Gobierno para que Euskadi sea referente en la actividad física que realicen sus ciudadanos y ciudadanas.

3. Debemos realizar una reflexión en torno a las actuales estructuras de nuestras entidades y federaciones deportivas. Necesitamos adaptar nuestro sistema federativo al siglo XXI, y dicho sistema debe responder a los retos que exige la sociedad. Necesitamos un sistema más eficiente, que destine los recursos a la mejora del nivel deportivo. También tenemos tarea por hacer en torno a las estructuras de las competiciones existentes, con el fin de desarrollar en los diversos deportes ámbitos vascos de competición que resulten atractivos para la sociedad y sostenibles, teniendo en cuenta nuestra situación socioeconómica.

4. Otro de los objetivos es reforzar el deporte vasco de alto nivel, es decir, reforzar la Fundación Basque Team Fundazioa, como referente de los deportistas de alto nivel de Euskadi. Para ello resulta imprescindible la coordinación entre los diversos agentes. Debemos mejorar y ampliar las becas y servicios que se ofrecen a deportistas y entrenadoras y entrenadores. Asimismo, en colaboración con las diputaciones forales, apoyando a deportistas en el camino hacia la élite.

Queremos continuar impulsando el papel de Basque Team Zentroa de Fadura.

Potenciaremos la marca BAT (Basque Team) con el objeto de incrementar el número de participantes y la obtención de medallas y diplomas en los próximos Juegos Olímpicos.



5. Dopinaren inguruko gure tolerantzia zero izatea dugu helburu. Horretarako, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren lana indartuko dugu, animaliei kontrol gehiago eginez, lagin-kopurua mantenduz eta lehiaketatik kanpo egiten diren kontrolak indartuz. Horrekin guztiarekin, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia Munduko Agentziako kide izatea lortzea izango litzateke Euskadi dopinaren kontrako erreferente bihurtzeko azken urratsa, eta horretarako ari gara lanean buru-belarri.

6. Jarduera fisiko eta kirol arloko pertsonen kualifikazioa garatzea eta, oro har, kirol esparruaren profesionalizazioa indartzea da garatu beharreko beste ardatzetako bat. Kualifikazioaren arloan, Kiroleko Lanbideen Legea onartuko da, sektoreak hainbatetan eskatu baitu horren onarpena.

Kirolaren Euskal Eskolaren bitartez, kirol eragileak prestatzeko plana ezartzen jarraituko dugu.

7. Benetako berdintasuna lortzea da jarduera fisiko eta kirol esparruan dugun beste erronka bat.

Emakumezko kirolariak nekez agertzen dira hedabideetan, kudeaketa esparruetan edo kirol federazioetan.

Benetako berdintasuna, efektiboa, sustatuko dugu jarduera fisikoan eta kirolean. "Kirolean gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko programa" berrian jasota dauden ekintzak ezarriko ditugu, emakumeek euskal kirolaren hainbat esparrutan dituzten oztopoak eta diskriminazioak ezabatzeko, bai praktikan, bai kudeaketan, bai eta antolakuntzan eta zuzendaritzan ere. Era berean, gai horren inguruko araudia eta erakunde arteko koordinazioa garatuko dira.

8. Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan dugun beste erronka bat kirol egokituari loturik dago.

9. Gure kirolak babestea izango litzateke beste ardatzetako bat, gure kulturaren parte baitira. Beraz, gureak (autoktonoak) diren kirolei (herri kirolak, pilota eta arrauna) dagokienez, plan estrategikoak laguntzen jarraituko dugu, beste erakundeekin lankidetzarekin, etorkizuna bermatuko duten politikak garatuko ditugu, eta beharreko laguntza bideratuko dugu.

10. Jarduera fisikoa eta kirola gazteen heziketarako bidea ere badira, eta, zehazki, gure hizkuntzan hezteko bidea, hau da, gure gazteen artean euskara bultzatzeko eta indartzeko tresna aproposa. Beraz, ezinbestekoa dugu kirolaren eta euskararen arteko uztarketa hori, hizkuntza ikasi eta lantzeko, eta erabateko normaltasunez erabiltzeko. Jarduera hau Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren arteko lan taldearen bitartez garatuko da, kirol arloan euskara sustatzeko eta gazteen artean erabiltzen laguntzeko.

5. Nuestra meta será la tolerancia cero contra el dopaje. Para ello reforzaremos el trabajo de la Agencia Vasca Antidopaje, ampliando la realización de controles a animales y manteniendo el número de muestras y reforzando los controles que se realizan fuera de competición. El último paso que para convertir a Euskadi en un referente contra el dopaje sería lograr que la agencia antidopaje de Euskadi fuese miembro de la Agencia Mundial para lo cual trabajaremos activamente.

6. Otro de los ejes a desarrollar es la cualificación de las personas pertenecientes al sector de la actividad física y el deporte y, en general, el reforzamiento de la profesionalización del ámbito deportivo. En el área de la cualificación, se aprobará la Ley de las Profesiones del Deporte, aprobación que ha sido reiteradamente solicitada por el sector.

A través de la Escuela Vasca del Deporte continuaremos con la implementación del plan de formación de agentes deportivos.

7. Otro reto que afrontamos desde el área de la actividad física y el deporte es la consecución de una auténtica igualdad.

La presencia de mujeres deportistas en los medios de comunicación, en ámbitos de gestión o en las federaciones deportivas es todavía exigua.

Fomentaremos la igualdad real y efectiva en la actividad física y el deporte. Implementando las acciones que se recogen en el nuevo "Programa de promoción de la Igualdad entre mujeres y hombres en el sector deportivo" a fin de eliminar las barreras y las discriminaciones que encuentran las mujeres en los diferentes ámbitos del deporte vasco, tanto a nivel de práctica como de gestión, organización y dirección. Y desarrollo de la normativa y coordinación interinstitucional en la materia.

8. Existe también, dentro de la actividad física y deportiva, un reto asociado al deporte adaptado.

9. Otro eje sería apoyar nuestros deportes autóctonos, en la medida en que forman parte de nuestra cultura. Por consiguiente, en cuanto a nuestros deportes autóctonos (Herri kirolak, pelota y remo), continuaremos impulsando la implementación de planes estratégicos en colaboración con otras instituciones, desarrollando políticas que garanticen su futuro y canalizando la ayuda necesaria.

10. La actividad física y el deporte, constituyen también una vía de formación para la juventud y, concretamente, una vía de formación en nuestro idioma, es decir, un instrumento adecuado para promover y reforzar el euskera entre nuestra juventud. Por tanto, nos resulta imprescindible esta conjunción de deporte y euskera para el aprendizaje y cultivo del idioma y para que sea utilizado con total normalidad. Dicha actividad se canalizará a través del equipo de trabajo constituido entre la Viceconsejería de Política Lingüística y la Dirección de Actividad Física y Deporte para el fomento del euskera en el ámbito deportivo, de manera que sea una ayuda para su utilización por los jóvenes.

11. Azkenik, nazio bat garen heinean, euskal selekzioen aldeko politikak garatuko ditugu.

11. Por último, en la medida en que somos una nación, desarrollaremos políticas en favor de las selecciones vascas.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>1. KIROL EREDUAREN INGURUKO HAUSNARKETA SUSTATZEA</b></p> <p>1. Etorbizunerako nahi dugun jarduera fisiko eta kirol ereduari buruzko hausnarketa egin, Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea aldatzeko lege-proiektua idatzi ahal izateko.</p> <p><b>2. EUSKADI GIZARTE AKTIBOAGOA IZATEKO LAN EGITEA</b></p> <p>1. 2018ko Euskadiko Eskolako Kirol Jokoak antolatzea. (Eskola-ume kop.).</p> <p>2. Ahalmen urritasuna duten kirolariak eskolako kirol-jokoetan integratzea. (Eskola-ume kop.).</p> <p>3. Unibertsitate Kiroleko 2018ko Txapelketak antolatzea. (Kirolari kop.).</p> <p>4. Eskolako Kirolaren Euskal Batzordea dinamizatzea. (Bilera kop.).</p> <p>5. MUGIMENT Ariketa Fisikoaren Plan estrategikoa gauzatzeko jarraitzea.</p> <p><b>3. KIROL KLUBEI ETA FEDERAZIOEI BURUZKO HAUSNARKETA SUSTATZEA</b></p> <p>1. Euskal federazioen kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzak. (Federazio kop.).</p> <p>2. Euskal Kirol Federazioen Batasunarentzako diru-laguntza eta babesa, euskal federazioak berrantolatze eta optimizatzeko, bai eta euskal selekzioak eta horiek kanpora begira duten proiektua sendotzeko ere.</p> <p>3. Dopinaren arloan diziplina-zehapenak ezartzeko eta berrikusteko prozedura arautuko duen Dekretuaren proiektua izapidetzea.</p> <p>4. Kirol Entitateen Erregistroari buruzko 14/1998 Legea garatzeko Dekretuaren proiektua izapidetzea.</p> <p><b>4. GOI MAILAKO EUSKAL KIROLA INDARTZEA</b></p> <p>1. EAEko goi mailako kirolarien zerrendak egitea. (Kirolari kop.).</p>	<p></p> <p><b>2600</b></p> <p><b>32</b></p> <p><b>400</b></p> <p><b>2</b></p> <p><b>1</b></p> <p><b>47</b></p> <p><b>1</b></p> <p><b>70</b></p>	<p><b>1. IMPULSAR UNA REFLEXIÓN SOBRE EL MODELO DEPORTIVO</b></p> <p>1. Reflexionar sobre el modelo de actividad física y deporte que queremos a futuro a fin de posibilitar la redacción de un proyecto de ley de modificación de la Ley 14/1998 del Deporte del País Vasco.</p> <p><b>2. TRABAJAR PARA QUE EUSKADI SEA UNA SOCIEDAD MÁS ACTIVA</b></p> <p>1. Organizar los Juegos Escolares Deportivos de Euskadi 2018. (Núm. de escolares).</p> <p>2. Integrar a deportistas con discapacidad en los juegos deportivos escolares. (Núm. de escolares).</p> <p>3. Organizar los Campeonatos de Euskadi de Deporte Universitario 2018. (Núm. de deportistas).</p> <p>4. Dinamizar la Comisión Vasca de Deporte Escolar. (Núm. de reuniones).</p> <p>5. Continuar la ejecución del Plan estratégico de Actividad Física MUGIMENT.</p> <p><b>3. FAVORECER UNA REFLEXIÓN EN TORNO A LOS CLUBES DEPORTIVOS Y LAS FEDERACIONES</b></p> <p>1. Subvenciones para financiar los programas deportivos de las Federaciones Vascas. (Núm. de federaciones).</p> <p>2. Subvención y apoyo a la Unión de Federaciones Deportivas Vascas, para la reorganización y optimización de las federaciones vascas y potenciación de las selecciones vascas y su proyección en el exterior.</p> <p>3. Tramitar el proyecto de Decreto por el que se regula el procedimiento para la imposición y revisión de sanciones disciplinarias en materia de dopaje.</p> <p>4. Tramitar el proyecto de Decreto de desarrollo de la Ley 14/1998 en relación con el Registro de Entidades Deportivas.</p> <p><b>4. REFORZAR EL DEPORTE VASCO DE ALTO NIVEL</b></p> <p>1. Elaborar las listas de deportistas de Alto Nivel de la CAE. (Núm. de deportistas).</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. EAEko goi mailako zentroak birdefinitu eta arautzea, eta sareak sortzea. (Zentro kop.).	2	2. Redefinir y ordenar los Centros de Alto Nivel en la CAE y crear redes. (Núm. de centros).
3. Hobekuntza Teknikorako Zentroko (HTZ) eta euskal federazioetako teknikarien arteko talde-lanaren koordinazioarekin jarraitzea.		3. Seguir el trabajo de coordinación entre las y los técnicos del Centro de Perfeccionamiento Técnico (CPT) y las federaciones vascas.
4. Categoría absolutuko nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan eta maila goreneko estatuko emakumeen ligetan parte hartzeko diru-laguntzak, nazioarteko lehiaketetan parte hartzea baldintzatzen badute. (Entitate kop.).	44	4. Subvenciones para financiar la participación en competiciones deportivas oficiales de carácter internacional en categoría absoluta y en ligas estatales de mujeres, de máxima categoría, cuyo resultado condiciona la participación en eventos internacionales. (Núm. de entidades).
5. Nazioarteko goi mailako ekitaldiak antolatzeko diru-laguntzak. (Ekitaldi kop.).	34	5. Subvenciones para la organización de eventos Internacionales de Alto Nivel. (Núm. de eventos).
6. Foru aldundiekin elkarlanean aritu, talentua eta etorkizun oparoa duten kirolarien jarraipena egiteko edo horiei laguntzeko. (Kirolari kop.).	60	6. Cooperar con las diputaciones forales en el seguimiento y ayuda a las y los deportistas talentos y promesas. (Núm. de deportistas).
<b>5. ZERO TOLERANTZIA DOPINAREKIN</b>		<b>5. TOLERANCIA CERO CONTRA EL DOPAJE</b>
1. Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia sustatzea, dopinaren kontrako borroka bultzatzeko eta zero tolerantzia lortzeko. Dopinaren Aurkako Mundu Agentzian sartzea bultzatzea.		1. Promover la Agencia Vasca Antidopaje, con el objeto de potenciar la lucha contra el dopaje con el objetivo de tolerancia cero. Impulsar su integración en la Agencia Mundial Antidopaje.
2. Dopina kontrolatzeko prozesuak arautzen dituen Dekretuaren proiektua izapidetzea.		2. Tramitar el proyecto de Decreto por el que se regulan los procesos de control de dopaje.
3. Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia sortu eta arautuko duen Dekretuaren proiektua izapidetzea.		3. Tramitar el proyecto de Decreto por el que se crea y regula la Agencia Vasca Antidopaje.
4. Kirolean dopinaren aurkako programa garatzea, euskal kirol-federazioekin elkarlanean. (Lagin kop.).	350	4. Desarrollar el programa contra el dopaje en el deporte, en colaboración con las federaciones deportivas vascas. (Núm. de muestras).
<b>6. ARIKETA FISIKO ETA KIROL SEKTOREAREN PROFESIONALIZAZIOA BULTZATZEA</b>		<b>6. REFORZAR LA PROFESIONALIZACIÓN DEL SECTOR DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EL DEPORTE</b>
1. Kirolaren Euskal Eskola indartzea.		1. Potenciar la Escuela Vasca del Deporte.
2. Prestakuntza Programa landu eta martxan jartzea. (Prestakuntza-jarduera kop.).	20	2. Elaborar y poner en marcha el Programa Formativo. (Núm. de acciones formativas).
3. I+G+B proiektuak definitzea. (Proiektu kop.).	1	3. Definir proyectos de I+D+i. (Núm. de proyectos).
4. Europa mailako berrikuntza-proiektuak bultzatzea. (Proiektu kop.).	1	4. Fomentar proyectos de innovación de ámbito europeo. (Núm. de proyectos).
<b>7. BENETAKO BERDINTASUNA LORTZEA</b>		<b>7. LOGRAR UNA VERDADERA IGUALDAD</b>
1. 2018rako Kiroleko Berdintasun Programa berria diseinatu eta gauzatzea.	1	1. Diseñar e implementar un nuevo Programa para la Igualdad en el Deporte para 2018.
2. Emakumeen eta kirol arloan espezializatutako foroetan parte hartzea. (Foro kop.).	3	2. Participar en foros especializados en mujeres y deporte. (Núm. de foros).

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>3. Emakumeei eta kirolari buruzko berariazko materiala sortu eta zabaltzea. (Material kop.).</p> <p><b>8. KIROL EGOKITUARI AUKERA BERRIAK EMATEA</b></p> <p>1. Kirol Egokituaren Euskal Federazioarekin eta GaituzSport fundazioarekin batera Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat Kirol Plana martxan jartzea.</p> <p><b>9. GURE KIROL AUTOKTONOAK BABESTEIA</b></p>	2	<p>3. Crear material específico sobre mujeres y deporte y su difusión. (Núm. de materiales).</p> <p><b>8. DAR NUEVAS OPORTUNIDADES AL DEPORTE ADAPTADO</b></p> <p>1. Junto a la Federación Vasca de Deporte Adaptado y la fundación GaituzSport, implantar un Plan de Deporte para personas con diversidad funcional.</p> <p><b>9. APOYAR NUESTROS DEPORTES AUTÓCTONOS</b></p>
<p>1. Euskal Pilotaren 2016-2020 Plana garatzea eta Arraunaren eta Herri Kirolen plan estrategikoak gauzatzea. (Plan kop.).</p> <p><b>10. EUSKARARI BIDEAK IREKITZEA KIROL ARLOAN, GAZTEEN ARTEAN BEREZIKI</b></p>	3	<p>1. Desarrollar el Plan Estratégico de Pelota Vasca 2016-2020, y ejecutar los planes estratégicos de Remo y Herri kirolak. (Núm. de planes).</p> <p><b>10. ABRIR VÍAS AL EUSKERA EN EL DEPORTE, SOBRE TODO ENTRE LAS PERSONAS JÓVENES</b></p>
<p>1. Kirol arloan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin euskara sustatzeko proiektuak bultzatzea.</p> <p><b>11. EUSKAL SELEKZIOEN ALDEKO ETA KANPO –PROIEKZIOA DUTEN POLITIKAK SUSTATZEA</b></p> <p>1. Kanpo-proiektzioa duten EAeko kirol-ekitaldiak antolatzen elkarlanean aritzea. (Ekitaldi kop.).</p> <p>2. Basque Country marka indartzea. (Ekitaldi kop.).</p>	10	<p>1. Dinamizar junto a la Viceconsejería de Política Lingüística proyectos para el fomento del euskara en el ámbito deportivo.</p> <p><b>11. IMPULSAR UNA POLÍTICA EN FAVOR DE LAS SELECCIONES VASCAS Y DE PROYECCIÓN EXTERIOR</b></p> <p>1. Colaborar en la organización de eventos deportivos en la CAE con potencial de proyección exterior. (Núm. de eventos).</p> <p>2. Potenciar la marca Basque Country. (Núm. de eventos).</p>

PROGRAMA	PROGRAMA
4513 KULTURAREN SUSTAPENA	4513 PROMOCIÓN DE LA CULTURA
<b>ARDURADUNA</b>	<b>RESPONSABLE</b>
<u>10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA</u>	<u>10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA</u>
KULTURA SAILBURUORDETZA	VICECONSEJERÍA DE CULTURA
KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN DE LA CULTURA

### MEMORIA

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren helburua da gure herriko kulturaren eta arteen adierazpide ezberdinen, sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundea bultzatzea (musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoa, arte plastikoak, liburua...), haien agenteen prestakuntza eta profesionalizazioa indartzea, eta herritar guztientzako kalitatezko kultura-eskaintza ziurtatzea.

